

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARIDASKO UDALA

Bake epaile titularren eta ordezkoren lanpostuak betetzeko deialdia

Bat etorri Botere Judizialaren Lege Organikoak 101. artikuluan eta hurrengoetan eta ekainaren 7ko 3/1995 Arautegiak, bake epaileenak, 5.artikuluan xedatutakoarekin, hogeita hamar egun naturaleko epea ezarri da, iragarki hau ALHAOn argitaratu osteko egunetik aurrera, interesa dutenek eskaera aurkez dezaten udaletxeko idazkaritza nagusian, bake epaile titularren eta ordezkoren lanpostuak betetzeko Navaridasko bake epaitegian, lau urterako.

Hautagaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, BJLOren arabera:

- Adin nagusikoa izatea.
- Nazionalitate espainiarra izatea.
- BJLOren 303. artikuluan, 389. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako ezgaitasun edo bate-
raezintasunen bat ez izatea.

Eskaerarekin batera, NANaren fotokopia eta aurrekari penalik ez dela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hau.

Navaridas, 2025eko urriaren 28a

Alkatea

MIKEL FERNÁNDEZ CALLEJA